

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **39/2020 Mozioa, uztailaren 3koa, Aiarako turismoaren sustapenari buruz**

Arabako Batzar Nagusi hauetako Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren III. Batzordeak, 2020ko uztailaren 3an egindako bilkuran, honako mozioa onetsi zuen:

39/2020 Mozioa, uztailaren 3koa, Aiarako turismoaren sustapenari buruz

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote lanean jarrai dezala Aiarako Kuadrillarekin, udalekin eta turismo-sektorearekin eskualde horretako turismo-eskaintza hobetu eta bertako turismo-baliabideak sustatzeko.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote mantendu eta indartu ditzala dirulaguntzen deialdiak, Aiarako Kuadrillek eta udalek, Arabako gainerako kuadrillek eta udalek bezalaxe, turismo-azpiegiturak hobetzeko eta sustatzeko ekintzak gauzatu ahal izan ditzaten.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Aiarako eta gainerako kuadrilletako turismo-enpresen inbertsioak babesteko programekin aurrera jarrai dezala, bidaiariei eskaintzen dizkieten zerbitzuak hobetu eta enpresa horien lehiakortasuna sendotzeko.

4. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote lanean jarrai dezala Artziniegako Museo Etnografikoaren bideragarritasuna bermatzeko, Kexaako monumentu multzoko turismo-eskaintza hobetzeko eta Laudioko Lamuza Parkeko eraikin historikoak berreskuratzeko.

5. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote turismo inklusiboa sustatzen jarrai dezala, justizia soziala errespetatzeko beharrezkoa baita eta sektorearen lehiakortasuna hobetzen baitu.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 3a

*Presidente*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**